

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**204/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 23ko 774/2024 Erabakian hautemandako akats bat zuzentzeari**

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 23ko 774/2024 Erabakiaren bidez (abenduaren 30eko ALHAOn argitaratua; 147. zk.), onespena eman zitzaion Arabako Foru Aldundiaren 2024rako enplegu publikoaren eskaintzari.

Erabaki horren eranskinean akats bat antzeman da kultura ekintzako erdi-mailako teknikari lanpostuaren eskalan (11. kodea). Izan ere, eranskin horren arabera, lanpostu hori Administrazio Orokorreko eskalakoa da, Teknikarien azpieskalakoa, A1 azpitaldekoa, baina Arabako Foru Aldundiko lanpostu zerrendaren arabera, lanpostu hori administrazio bereziko eskalan dago sailkatuta, zerbitzu berezien azpieskalan, egiteko berezien klasean, A2 azpitaldean (221 kodea).

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 109.2 artikuluan, honela dio: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

Nahitaezko txostenak ikusita eta haietan oinarrituta, lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Zuzentzea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 23ko 774/2024 Erabakiaren eranskinean antzemandako huts materiala (abenduaren 30eko ALHAOn argitaratua; 147. zk.), honela:

— Plaza: kultura ekintzako erdi-mailako teknikaria.

"Eskala, azpieskala eta klasea" zutabea, "11" esan beharrean, "221" esan behar du.

— Eskalaren kodeak.

Lzren literalari buruzko erreferentzia kentzea: "11: administrazio orokorra-teknikoa".

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, eta haren laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

MARÍA JOSÉ FERNÁNDEZ ALONSO